



Tolosako gauak girotzeko egitarau oparoa Gaugiron

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko hiru gazte punta-puntan

Lasa, Garmendia eta Irazustabarrena ▶ 5

LEHEN KONTZERTUA ▶ Datorren ostiralean, hilaren 13an, izango da Homo Demens taldearekin

BESTEAK ▶ Tolosako Musika Banda, Jallmai, Mendizabal-Furundarena eta Sexteto vocal Buenos Aires ▶ 3

«Oso positibotzat» jo dute antolatzaileek asteburuko Moto Festa

IBARRA ▶ Herritarren erantzunarekin eta motozaleen parte-hartzearekin «oso gustura» azaldu dira Langostino kultur elkarteok ▶ 6



PERIKO PEÑAGARIKANO ▶ ANOETAKO ALKATEA

«Herriak egin du azken legealdiko balantzea»

Udaletxera bueltatu da gehiengo osoa lortu ondoren ▶ 4

Periko Peñagarikano. I. GARCIA



LEITZA ▶

Asketa abesbatzak Kataluniako antzerki talde baten ikuskizunaren soinu-bandan hartuko du parte

Fadunito izeneko taldearen grabazio lanetan aritu ziren joan den astelehenean, herrian bertan ▶ 7

Aurtengoan ere, Toureko tropela Mediterraneora!

Ablan da tropela.net: tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea dohainik.

Lehen emateko espazio limitatuta, urtekoak 7. 18.00etan

Sarean aritzean, hitzaren harpidetza irabazteko aukera tropela.net

hitza



GIZARTEA ▶

Aste Berdeko irabazlea, berastegiarra

I. Terradillos ▶ Tolosako Udalak ekainean antolatu zuen Aste Berdearen baitan, postalen lehiaketa bat egin zuten eta irabazlea Maria Jesus Labaien berastegiarra izan zen. Lehiaketa honetan, postaletan gaiarekin zerikusia duen mezu bat idatzi eta lagun bati bidali behar zioten parte-hartzaileek. Irabazleak La Perla talasoterapia zentrorako sarrera jaso du irabazleak. Irudian, Joselu Andueza, Maria Jesus Labaien eta Antton Lekuona. HITZA



GIZARTEA ▶

Sanferminak gurean ere, bihar eta etzi

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Alde Zaharreko bizilagunen elkarteek

IÑIGO TERRADILLOS

Iruñean bihar ekingo diete Euskal Herriko jarik garrantzitsuenetakoak diren San Fermin jaiei, baina gurean ere izango da txuriz eta gorritz jantzi eta festa egiteko aukera, azken 3 urteetan bezala Tolosako Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak San Fermin Txiki fes-

tak antolatu baititu bihar eta etzi hainbat ekitaldirekin.

Duela 3 urte berriro antolatzen hasi ziren arren, tradizio handia zegoen lehen Alde Zaharrean sanferminak festa giroan ospatzeko. Aurtengo jaietara bueltatuz, berrikuntza bezala zezen txikiak egongo dira, eta Kalitatea pintxoaren banaketa ere bai, besteak beste.



lazio festetako une bat. L. MONTES

EGITARAUA ▶

BIHAR

12:00. Txupinazoa. Ondoren, gozokiak eta globoak banatuko dituzte, eta buruhandiak izango dira.

17:30. Entzierro txikia: Plaza Berria, Errementari kalea, Korreo kalea, Plaza Berria. Ondoren, txokolatea denontzat.

ETZI (SAN FERMIN EGUNA)

12:00. Suziriak botako dituzte, eta ondoren buruhandiak izango dira. Ondoren, Kalitateko hegaluze eta atuntxiki pintxoak banatuko dituzte.

17:30. Haur jolasak.
20:00. *Pobre de mi.*

EZBEHARRA ▶

Yemengo atentatua gaitzetsiz

I. Terradillos ▶ Jokin Bildarratz Tolosako alkateak Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egin-dako deiarekin bat eginez, herritarrei deia luzatu zien atzo eguerdian Yemengo atentatua gaitzetsiz elkartzeko udaletxe aurrean. Hala, 20 lagun inguru elkartu ziren Mikel Essery eta Magie Alvarez zarautzerra eta beste 7 lagunengatik eragin duen atentatua gaitzesteko. I.T.



KIROLAK ▶

Paleta Txapelketan izen-ematea

Tolosa CFk aurten ere Paleta Txapelketa antolatu du. Bertan parte hartzeko interesa dutenek Berazubiko bulego-etan edota 656 71 92 63 telefono zenbakian egin ahalko dute. 10 euro ordaindu beharko dute bikoteko Tolosa CFko bazkideek eta gainerakoek 20 euro. Gaur izango da azken eguna izena emateko.

KIROLAK ▶

Alpino Uzturrek irteera antolatu du hilaren 15ean

Alpino Uzturre elkarteak hilaren 15ean Logibar-Abodi mendia zeharkaldia egingo du, Orhi mendia (2.017 m) igoz. Irteera 06:00etan izango da Gorosabeletik eta 7 orduko iraupena izango du gutxi gorabehera. Holtzarteko zintzurra eta bere zubi eza-guna igaroko dituzte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GUTUN@K ▶

Gerontologikoa kanpainan

Hauteskunde demokratikoen aurreko kanpainari eta ondorengo emaitzen balorazioari segitu dien edonor konturatu zen ia alderdi politiko guztiek hizpide izan dutela Gerontologikoa ixtea, aurreko legealdiko gai garrantzitsu bat bezala.

Batzuek, EAJk eta EAK, Aldundiari eman diote errua, baina beraiantzat Gerontologikoa berria egitearekin arazoa konpondurik dago. Beste batzuek, PSOEek, Gerontologikoa ixtea legealdiko puntu beltza izan zela zioten. Eta horren erruduntzat Aldundia eta Tolosako Udaleko EAJ alderdia jo zituzten. Gainera zalantza batzuk

ere agertu zituzten zentro berriaren kalitateaz. IU-Aralar kritikoki agertu zen Diputazioarekin eta Udaleko EAJrekin. Gainera, Udalean izan duten ordezkararen jardura dela eta, autokritika egin zuen.

EAE-ANVrentzat Eusko Alderdi Jeltzalearen jokabidea Diputazioan eta Udalean bertan tamalgarria izan da. Bate-tik, Gerontologikoa ixtea erabaki zutelako, herritarren interesei muzin eginez; eta bestetik, eurek beraien sortutako arazoaren konpontzaile bezala aurkeztu zutelako beraien burua. Hauteskunde kanpainan Gerontologikoa aipamenik egin ez duen alderdi bakarra Alderdi Popularrak izan da.

Guretzat gaia ez da konpondu Gerontologikoa berriaren

proiektuarekin. Izan ere, oraindik hasi gabe dago, eta gauza batzuk ez dira oso argi ikusten, horregatik segimendu egoki bat egin beharko zaio: Aterpe egokirik (itxura batekoa edo besteakoa) izango al dute gure zaharrek eta beraien familiakoe-ek euria egiten duenean. Edo eguzkiak jotzen duenean batesteko edota airea hartzeko eragozpenik gabe? Zentroak izango al du topalekurik (gizarte zentrua, bingo aretoa, bilera gelak, etab.) etxeak eta zahar-rrak elkartzeko eta baliagarria izango dena zentroa eta bere erabiltzaileak herriaren bizitzan integratzeko.

Zentroak Udalaren ekarpen ekonomikoa izango duenez, Udalak lurzorua jarriko duenez eta bere diru sarrera kopuru handi bat ere denon poltsi-

kotik (Diputazioa) aterako duenez, jarriko al da martxan mekanismoren bat zentroaren erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko eta segimendua egiteko. Gobernu Batzorde bat sortuta eta batzorde horretan, ordez-kari politikoez gainera, elkarte-en, kolektiboan, familiakoen eta zentroaren erabiltzaileen ordezkariek sartuta. Zentroa egin bitartean, Udalak pentsatu al du nola konponduko duen itxaron zerranden gaia? Udal hauteskundeak izan baino zertxobait lehenagotik eta gaur arte, ez gara zerranda horien jakitun. Izan ere, Alkatetzaren iragazkia informazio iturriaren tapoi bihurtu da. Eta funtsezko puntu iluna.

Zer nolako kalitatea izango du emango den zerbitzuak,

zentrori iristen diren 10 pezetetik 7 besterik ez badira erabiltzen zerbitzuetan? Hain zuzen, 10 pezetetik 3 zentroa ustiatzen duen enpresa pribatuak eramango ditu.

Baina gure zaharrei ematen zaizkien zerbitzuen jarraipena ez dugu mugatuko gerontologikoa berrira bakarrik. Hain zuzen, erabakita dugu lurra-remendiren jarraipena egitea. Ildo horretatik, lurraemendiko Gobernu Batzordeko partaide izateko eskatera egin dugu lurraemendin, bi urteotan gure kolektiboak argi erakutsi duela oso interesatuta dagoela egoitza baten beharra duten pertsonen ongizateaz. Oraindik ez dugu erantzunik jaso.

MANU LEUNDA (ETA ORAIN ZER GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA) TOLOSA

KULTURA ▶

Dantza erritmoak gurean udako gauak alaitzeko

Urtero bezala, musika emanaldi ezberdinak izango dira Gaugiron; lehenengo kontzertua datorren ostiralean izango da, Homo Demens-en eskutik

ESTI EZEIZA

Uda honetarako musikaz beteriko egitaraua prestatu dute Udalekoek gauak girotzeko. Era, jatorri eta erritmo ezberdinetako taldeak izango dira entzungai uztailean eta abuztuan.

HILAK 13, OSTIRALA

Homo Demens. 22:30etik aurrera Plaza Berrian izango da entzungai beraien kontzertua. Homo Demens azken bi urteetan osatzen joandako talde tolosarra da. Pop musika eredu hartu eta pop-aren baliabide guztiak ustiatzen joan den taldea da. 80. hamarkadako doinuak, erritmo britainiarrak, rock klasikoaren ereduak aztertuta eta bluesari keinu egiten dion pop pertsonala emaitza gisa lortuta. Euren lehen gra-



Jallmay Peruko taldearean saioa hilaren 16an izango da ikusgai. HITZA

baketa lana hil honen amaierarako izango da entzungai.

HILAK 26, OSTEGUNA

Jallmai. Euskal Herria plazan izango da entzungai Peruko taldea, 22:30etik aurrera. Dantza folklorikoak interpretatzen ditu 1998an sortu zen talde honek. 40 lagun baino gehiagok eraten duten taldea, Peruko herrialde ezberdinetako artistekin osatua dago. Beraien helburua, Peruko tradiziozko musika, kantu eta dantzak atzerrian zabaltzea delarik.

HILAK 27, OSTIRALA

Tolosako musika banda. Plaza Berrian udako kontzertua emango dute 22:30etik aurre-

ra. Egitaraua oraindik zehazteke badago ere, erritmo dantza-garriak eskainiko dituzte.

ABUZTUAK 3, OSTIRALA

Garikoitz Mendizabal - Aitor Furundarena. Txistu eta akordeoi doinuak izango dira protagonista Plaza Berrian 22:30etik aurrera. Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena osaturiko bikoteak prestatu duen egitarauari esker, txistua eta eskusoinua bateratuz lor daitekeena entzuteko aukera izango da. Errepertorioaren barruan askotariko musika estiloko eta motak daude: ganbera musika, lurralde askotako folka, dantzarako musika, baita Euskal Herriko artzainen antzinako musika ere.

ABUZTUAK 31, OSTIRALA

Sexteto Vocal Buenos Aires. Argentinako eta Hego Ameriketako ohiturazko abestiak interpretatzen dituzte a capella. Seikotearen musika estilo nagusietakoa tangoa da. Sei urte inguru dituen taldeak azken urteetan errepertorioz aldatu du, eta nazioarteko klasikoak jotzen ere hasi dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Anoetan emakume euskalduna behar da umea zaindu eta eteko lanak egiteko. Deitu 629 54 02 11ra.

GALDUTAKOAK

Pultsera. Leaburur pultsera bat galduta. 608 395406.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hitza

Praktikak HITZAn irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziaturretako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(uztailaren 15a baino lehen)

PERIKO PEÑAGARIKANO ▶ ANOETAKO ALKATEA

«Azken lau urteetako balantzea herriak egin du hauteskundeetan»

EAE-ANVko Periko Peñagarikano da Anoetako alkate berria gehiengo osoarekin

IMANOL GARCIA

Berriro bueltatzen da udaletxera alkate postuan Periko Peñagarikano (Albiztur, 1955). Alkate izan zen 1987tik 1991ra eta zinegotzi 1991-1995 eta 1999-2003 legealdietan.

Nolatan aurkeztu zinen berriro udal hauteskundeetarako zerrendan?

Kontuan izan behar da azken lau urteek eten bat suposatu dutela herrian. Lehen lau urte horiek betetzen ziren batzuk eta besteak sartuz. Apartheid egoerarekin, tokatzen zitzairen lau zinegotzi haiei lekua ez zitearekin halako eten bat izan da. Talde bat lanean oso indartsu aritu da. Lehen ere izan zen, eta bereziki lau urte horietan, eta ikusten zuten jendea prest bazegoela eta eskatu zuten esperientzia zuen norbait egotea, egokia izango zelakoan. Hasiera batean zerrendetan egoteari uko ez niola egingo esan nuen eta pixkanaka aurrea egin nuen zerrendaburu izan arte.

Zutaz gain, beste zinegotziak berriak dira Udalean?

1987-1991 legealdian izan ginen hiru zerrendan izan gara eta horietako bat, Gregorio Zuaznabar, zinegotzia da. Gero esperientzia politiko zuzena izan ez dutenak ere badaude. Gorka Otxoa-Aizpuruak aurreko legealdian zinegotzia izan behar zuen, baina ilegalizazioa dela-eta erabat aparte utzi gintuzten. Gazte jende asko bada go eta lanerako ilusio eta gogo handiarekin eta agian ilusio horrek ere pixka bat kutsatuta animatu ginen beste batzuk.

Zer analisi egiten duzu hauteskundeetako emaitzei buruz?

Inoiz lortu ditugun emaitza onenak dira. Horrek esan nahi du herriak nahi zuela aldaketa bat, horrelako emaitzak ez direlako inoiz izan. Nik ezagutzen dudanetik Anoetako udaletxearen ibilbidea, zappi eta bi zinegotzi izatea ez da inoiz gertatu. Emaitza aldetik oso onak izan dira.

Ezker abertzaleak hauteskundeetan udalerriri guztietan ezin izan du aurkeztu.

Alderdiaren Legea erabat antidemokratikoa da eta hori tartean dela ezinezkoa da Euskal Herrian hauteskunde demokratikoak ematea. Batzuei ez zaie uzten eta beste batzuk, Li-



I. GARCIA

zartzan gertatu den bezala, nahi dutena egin dezakete. Ez dut ulertzen eta ez dut onartzen lege hori eta horrek egiten duen beste gauza bat herrian tentsioa, egonezina eta tira-birak sortu. Lege horrek desagertu egin beharko luke. Pertsona batek aukeratu izan da din eskubidea kentzea inolako deliturik egin gabe, ez dakit inon ematen den. Bada, Euskal Herrian ematen da.

Zein balantze egiten duzu azken lau urteetaz?

Guk izan dezakegun iritzi oso kanpokoa da. Ez dugu barnean lana egiteko aukera izan. Ez dakizkigu gauza asko nola dauden, pixkanaka-pixkanaka ikusten joan behar dugulako. Lehen ere beste noizbait esan dudun bezala, lau urte horietako balantzea Anoetako herriak egin du. Zein emaitza egon diren ikusita, nik uste dut hor dagoela balantzea.

EAE-ANVk alkatetza lortu du zuten herrietan auditoria bat egingo duzuela azaldu duzue.

Guk ere ikusiko dugu gauzak nola dauden, zein baldintza ekonomikoetan gauden, eta hortik aurrera pixkanaka lanean hasiko gara. Udaletxera sartzeak garai hau ez da egokia izaten. Hauteskundeen ondoren, hilabetera alkatea aukera-

tzen da, beste hilabete batera gutxi gora behera batzordeak eta antolatutako behar dira eta uztailaren erdialderaino iristen gara. Abuztua ere segituan gaiten dago. Agian ondo ere etortzen da, gauzak ikusteko, baina martxan jartzea kosta egiten da eta gainera kontuan izan behar da beste udalbatza batek kudeatutako aurrekontu batekin ari zarela eta zure proiektuak aurrean hasteko zailtasunak izaten dira.

Aurrekontuari dagokionez, aurreko legealdian alptu zen kiroledegiaren gastua zela-eta diru eskasia zegoela inbertsioak-eta egiteko. Nola dago egoera ekonomikoa?

Esan bezala, oraindik lurreratu berriak gara eta gauza asko ez ditugu ikusi. Egia da kiroldegia inbertsio indartsua izan dela, baina egia da ere horren amortizazioak oso gutxi egin direla. Kritikatu zaiguna da horren aurreikuspenik ez zegoela, baina egon bazegoen. Ez gurea eze eroraintu ere bai, baina normalean jendeak etxea ordaintzen da erosi eta gero, eta kiroldegi bat ezin zen ordainduta utzi egin aurretik. Gero aurreko legealdikoek egin zuten lehenbiziko gauekako bat arau berriztatzaileak atzera botatzea izan zen. Orain-

goak ere diru-iturri bat ahalbidetu dute onartzen badira eta lehengoek ere bazuten. Hori moztean erraza izan da errua guri botatzea. Lau urte hauean arauak berrikusten izan dira eta orain lau urte geunden puntu berdinean gaude, hau da, behin behineko onarpenarekin. Aurreikuspen batzuk bazenuden hori ordaintzeko, baina hori mozten bada... Jakina da udaletxeetan ekonomia-iturri garrantzitsuenetako bat hiritzintza dela. Eta hor ez da ezer handirik egin eta bezaz ez da diru iturririk etorri. Beste diru-iturririk aztertu dituzten ez dakigu.

Hain justu, etxebizitzaren arloan zer aurreikuspen duzue?

Arau berriztatzaileak behin behineko onarpenarekin daude. Anoetan hazkunde naturala, hirigintzaren aldetik, Lasar-be eremutik da. Hori kudeatzea izango da gure lanetako bat. Ikusi beharko dugu gure beharrrak zein diren. Aurreko legealdian arabera, 99 babesutako etxebizitza egiteko aurreikuspena dago. Guk egin nahi duguna da Anoetaren beharrrak zeintzuk diren ikusi eta horien arabera gauza horiek antolatutako bat egin egingo diren. Ezin ditugu etxeak egin egiteagatik, baizik herriaren beharregatik. Nolakoak

egin behar ditugun oso garbi izan behar dugu, mementuz eraikitzeke dugun eremua hori delako.

Zer asmo dituzue beste arloetan legealdi honetarako?

Herri guztiek izan behar dituzte ahalik eta zerbitzu gehien. Anoetan batzuk egonik ere, ari gara jasotzen dei batzuk, esaterako, pediatria zerbitzua ahul xamar dagoela esanez. Bestalde, lehen esan bezala, eten bat izan da lau urte hauetan. Eten hori apurte beharra daukagu eta Udalak gaztediarekin eta beste sektore batzuekin izan ez dituen harremanak berreskuratu behar ditugu.

Gehiengo osoa duzue. Oposizioarekin hartu-emanik izango da?

Ezker abertzaleak izan ez duen aukera izango du EAJK. Lana egin eta aportatu nahi badu, mahai berean eseriko da. Hemen ez da jarriko orain lau urte bezala aparteko mahai bat. Nahi dituzten aportazio guztiak egin ditzakete eta horiek herriarentzat interesgarriak badira kontuan izango ditugu. Guk dagoeneko lan taldeak osatu ditugu. Gure leloetako bat da Udala ireki egin behar dela, Udala herriratu egin behar dela. Lan talde horietan parte har dezake herri honetako edonork. Mundu guztiak izango du aukera parte hartzeko.

Zer iritzi duzue Agenda 21ari buruz?

Agenda 21 interesgarria da. Gauza txiki bat bezala hasi zen orain urte batzuk eta gaur egun dimentsio ikaragarria hartzen ari da. Hitzartuak daude datorren ikasturterako Ikastolaekin-eta zenbait ekin-tza eta horiek guztiak bultzatuko ditugu, dudarik gabe.

AHTari dagokionez zer egin-goz duzue?

AHT makroproiektuaren inguruan gertatzen ari dena da informazio gutxi dagoela, sekretismo handiarekin ematen den proiektua da. Horrelakoak herritarrei galdetu egin behar zaie iruditzen zaigu. Gure balidabide guztiak jarriko ditugu informazio lortu eta zabaltzeko. Udalean martxan jarriko diren lan taldeetako bat horren inguruan izango da. Bestalde, adierazgarria da Eusko Jaurlaritzatik esandakoa, hau da, Udalen erabakiek ez dutela proiektu AHTren proiektua geldituko. Beste zenbait gauzetarako, berri, Udalak ezinbestekoak dira. Demokrazia parte-hartzailearen inguruan ahoa betetzeko zaie, baina dirudinez hermen herri kontsulter izugarriko beldurra zaie. Horrelako proiektu baten aurrean herri kontsultera bat egin beharko litzateke.

IBARRA ▶

Txosna batzordearen bilera, gaur

Gaur 20:00etan Ibarrrako Kultur Etxean txosna batzordearen bilera burutuko dute. Bertan, Gazte Festetan erabilitako edalontzi berrerabilgarrien inguruan hitz egingo dute. Bertan parte hartzeko deia luzatu dute.

BALIARRAIN ▶

KZgunearen bisita asteartean izango da

Baliarraingo KZgunearen bi ikastaro izango dituzte hilean zehar. Lehena datorren asteartean izango da, hilaren 10ean, hain zuzen. 16:00etatik 20:00etara izango da. Bestera, hileren 24an izango da, ordu berdinetan.

ZIZURKIL ▶

Gaur, ezker abertzaleak deituriko bilera

Gaur 20:30ean Zizurkil Goiko Kultur Etxean ezker abertzalearen batzarra izango da. Bertan, 2003-2007 urteen bitarteko legegaldiko balantzea eta aurrera begirako plan-gintza ariko dira. Antolatzaileek gonbitea luzatu dute.

ANOETA ▶

Gaur, KZgunearen bisita izango da

Anoetako KZgunera tutorea joango da gaur 16:00etatik 20:00etara. Herritarren txartelaren inguruko ikastaroak emango ditu 18:00etatik 20:00etara; beraz, nabigatze-ko ordutegia 16:00etatik 18:00etara izango da.

GIZARTEA ▶

Sari handiak gaztetxoentzat

Eneko Lasa mundu mailako arrantza txapelketara joango da, Lide Garmendia gimnasta onenen artean da eta Imanol Irazustabarrena bertsolaritzan, fin



Lide Garmendia gimnasta ikaztegi-tarrak 12 urte ditu, eta azkeneko hiru urteetan punta-puntako gimnasta dela erakutsi du. HITZA



Eneko Lasa arrantzailea Cuencan egindako Espainiako Txapelketan, amuarraina sarean duela. HITZA

NEREA URBIZU

Kirola eta kultura dira eskualdeko gazteek ikas-teko eta praktikatzeko duten aukerarik oparoena: futbola, pilota, musika... Dena dela, afizio edo gustu ez horren arruntak ere badituzte gazteek: ez horren arruntak bezain interesgarriak. Kasu honetan, gimnastikaz, arrantzaz eta bertsolaritzaz ari gara.

Alegiko Eneko Lasa gaztea Espainiako Arrantza Txapelketara joan zen ekainaren 28an eta 29an, Cuencara (Espainia). Bertan, 38 arrantzale izan ziren, eta han hoberenak aukeratu zituzten, 16. alegia. Hauek goi mailako lehiaketan ariko dira hurrengo 5 urteetan, maila altuenean, hain zuzen ere. Tartean, Eneko Lasa dago eta Espainiako Txapelketan laugarren egin ondoren mundiale-tan izango da datorren urtean.

Oraindik ez da ziurra non izango den mundiala, Kanadan (AEB), edo Zelanda Berrian. Argi dagoena, Eneko Lasa 13 urterekin arrantza onenen artean ariko dela da.

Proba epaile batekin egin zuten, bat goizean eta bestea arratsaldean. Hala egin behar da, bina partaide joaten dira, eta honela dena legalki egiten dutela ikusten da. Amuarrain basatien arrantza izan zen.

Lide Garmendia gimnasta

Lide Garmendia hainbat urte daramatza gimnastika praktikatzen eta sariak jasotzen: 12 urte ditu, eta Euskadiko Txapelketan 5. egin du. Gazte ikaztegi-tarra Tolosa CF gimnastika taldekoa da, eta denboraldian zehar hainbat txapelketa irabazi ditu Gipuzkoakoan parte hartu ahal izateko. Honetan, txapeladunorde egin zuen, eta



Imanol Irazustabarrena. HITZA

emaitza on honen bitartez, Euskadikora joan ahal izan zen. Aurten soka eta uztaia ziren egin behar zituenak, 12 urterekin egin beharrekoak, alegia.

Aldi berean, infantilen gimnastika taldeak emaitza onak jaso ditu, Euskadiko Txapelketan taldeka 2. egin baitu, beti ere, Arantxa Aristondo eta Jaione Tejedor prestatzaileei esker.

Irazustabarrena bertsotan

Bertsosozalatasuna handia da Tolosaldean, baina bertsolari gaztetxo nabarmenurik, ez asko. Imanol Irazustabarrena alegiarrak aurten Euskal Herriko Bertso Txapelketan hartu du parte, eta bigarren egin du, 14 urterekin.

XIX. Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalera iritsi zen, eta Altsasuko proban maila altua erakutsi zuen. Imanol Irazustabarrenak bertso paper lehiaketatan ere sariak jaso izan ditu, Sabino Arana Fundazioan eta Alegikoan, besteak beste. Puntako hiru gazte gutxienez, beraz, Alegialdean.

HITZAKO HARPIDEDUNEI ESKERRIK ASKO!

entzadan
lentzeria-denda

HITZA etxeko buzoian jasotzeko, atariko giltza utzi diguten harpidedunen arteko zozketan, **Mari Carmen Dolado** tolosarrak irabazi du Ortzadar Lentzeria dendan 120€-ko erosketa txartela. **ZORIONAK!**

GIZARTEA ▶

Moto Festaren balorazio «oso positiboa» egin dute

Langostino Moto Kultur Elkarte «gustura» agertu zen parte-hartzearekin eta herritarren erantzunarekin



170 motok eman zuten izena Moto Festan, nahiz eta kanpoan 200 baino gehiago elkartu ziren. HITZA

ASIER IMAZ

Iragan asteburuan Langostino Moto kultur elkarteak antolatuta, Langostino Moto Festa 2007 burutu da Ibarra. Herriko plazan era guztietako motor eta motozaleak elkartu dira bi egunetan zehar, jokuak, erakustaldiak eta kontzertuetan parte hartzeko asmoz.

Antolatzaileek balorazio «oso positiboa» egin dute, bertara gerturatu zirenen arteko giroa azpimarratuz, «giroa ere oso ona izan zen, inongo liskar eta istilurik gabe. Langostino Moto Festa jai familiar bat bezala da, ez da mediterraneo aldeko festa handi horiek bezala. Harremanak egin eta ondo pasatzeko aukera ematen du horrek, jendea ezagutzeko azken

batean. Festa handietan hori askoz zailagoa izantzen da».

260 pertsonak eman zuten izena moto festan, hauetatik 52 emakumeak izan ziren. Motozale gehienak Euskal Herriatik gerturatu ziren, baina Katalunatik, Galiziatik eta Espainiatik etorri zirenak ere izan ziren. Guztira 170 motok eman zuten izena zerrendan, nahiz eta izena eman gabe 200 inguru geratu, «egun pasara etorriak». Uzturne ikastolan jarritako atsedenean ere, «inoiz baino kanpin denda gehiago» jarri zituztela aipatu dute Langostinokoek.

Sariak ere banatu zituzten jaiaren barnean. Moto onena edo *Best Of Show* saria Gazteizko Guasch jaunak eraman

zuen. Moto talde handienaren saria berriz, goierriko Sugo taldeak eraman zuen, 14 kide bildu baitziren Ibarra. Fidelitasunaren saria ere banatu zuten, bera Leridako Sheriff moto klubaren esku geratu zen.

«Herritarrei eskerrak»

Langostino Moto Elkarte ki-deek «herritarrei eskerrak» eman nahi izan dizkiete. «Erropa beltza, kateak eta horrelako mitoak pixka bat hautsi direla ikusi dugu. Aurten ibartar gehiago geratu da herrian, eguneko ekitaldiak ikusten eta gaueko kontzertuetan. Hau ere positiboa dela iruditzen zaigu. Gu saiatzen bait gara festa hau motozale eta orohar herri guztientzat izan dadin».



Motozaleen babes hesia

Eskualdeko errepideetan motozaleentzako ziurtasun hesiak jarzen hasi dira azken egun hauetan. Errepide nagusietan jartzeaz gain, N-1 en kasuan bezala, bigarren mailako bideetan ere lanek aurrera jarraitzen dute. Azken urteetan, neurri hau eskatu dute motozaleek istripuengandik babesteko. A. IMAZ



Motorren kanpaina bi astez

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak bi aste iraungo duen ziklomotore eta motozikleta kontrol kanpaina hasi dute. Kanpainak irauten duen bitartean, kasko erabilera, dokumentuen egiaztapena, hots maila eta ibilgailuaren egoera aztertuko dituzte. A. IMAZ

hilberria ▶

Mikel Essery Arruti

(Uztailaren 2an, Yemenen hil zen)

Urak dakarrena urak daroa.
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.



Berastegiko Muñagorri ikastetxeko ikasle eta gurasoak

BERASTEGIN, 2007ko uztailaren 5ean

hilberria ▶

Mikel Essery Arruti

Zuk emandakoa
zuk erakutsitakoa
beti bihotzean
izango dugu

Eskerrik asko, Mikel

Muñagorri eskolako irakasleak

BERASTEGIN, 2007ko uztailaren 5a

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

LEITZA ▶ MUSIKA

Ikuskizun batean soinu-bandan parte hartuko du Asketak

Fadunito izeneko Kataluniako antzerki taldearen ikuskizun batetarako grabazio lanetan aritu ziren astelehenean



Asketa Txiki abesbatza, Kataluniako Els Verdum abesbatzari ongetorria egiten. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Leitzako Asketa Txiki abesbatzak Kataluniako Fadunito antzerki taldearen hurrengo ikuskizunaren soinu-bandan parte hartuko du. Horretarako astelehenean bi soinu teknikari eta Fadunito antzerki taldeko kide den Ferran Orobigt herriaren izan ziren eta Asketa Txiki abesbatzarekin goiz osoan zehar bost abesti grabatu zituzten.

Nafarroan 44 kuru dira federatuta daudenak, baina Abesbatzen Elkarteak Asketa Txiki abesbatzean pentsatu zuen Fadunito antzerki taldearen deia jaso zuenean. Fadunito 2003. urtean sortu zen, Ferran Orobigt *Fadu Ivan Alcoba Nitorekin* elkartu zenean. Ordundik hainbat ikuskizun egin dituzte: *Ai, ai, ai* izenekoa, *Familia handia*, *Barreen sukaldea*, *Bizitza ipui bat da* eta *Zirko txikia*. Ekainean Errumaniaren izan berriak dira eta uztailaren 6tik 9ra bitarte Holandan egonen dira.

Juan Bautista Irazoki koruko zuzendariak azaldu duenez, «iraila edo urri aldera CD bat aterako dute, Espainia guztiko haurren abesbatzak bilduko dituen. Euskal Herria ordezkatzeko gu aukeratu gaituzte. 50. hamarkadan, 80. goan eta 2000. goan abestutako kantak

bildu nahi izan dituzte». Izan ere, Fadunito taldea eskolaren historiaren inguruko ikuskizun bat prestatzen ari da, hiru goarai horietan banatuta. 50. hamarkadan erabiliko dituzten abestiak erdaraz izanen dira eta 80. goan, berriz, euskara, galegoa, katalana eta valentziera ere sartuko dituzte. Tarragako Antzerki Jaialdian estreinatuko dute eskolaren historiari buruzko ikuskizun hau, irailan, baina gero alde batek bestera ibiliko dira.

Irazokiren ustez, «gauza polita da. Ona da, gainera ikuskizuna Espainia guztitik ibiliko da eta gero gure argazkia eta izena hor geldituko dira. Abestu zuten haur horien denen zerrenda ere eman beharra dut; 30 abeslearen izenak joanen dira aterako duten CD horretan».

Soinu teknikariak eta antzerki

taldeko kidea 10:30erako etorri ziren eta ia 15:00a arte grabazio lanetan aritu ziren. «Gure bost kanta genituen grabatu beharrak eta gero nahi zuten eskolako zenbait kanta abestea. Beraiek abesti bat ekarri zuten, gaztelaniazko letrarekin eta euskaraz abestu genuen. Mota hauetako kanta gehiago kantatzea nahi zuten, eta aspertu arte aritu ginen».

Hauk izan ziren abestu zituzten kantak: *Maite*, *Maite Sorozabalena*, *Txeru*, *Roberto Almandozena*, *Eskaia Lurreko Benito Lertxundirena*, *Ama*, *Luis Elizalderena* eta *Begiak*, *Karlos Irizarrena*. «Azken honi beraiek musika-banda jarri zioten eta haien erritmoan abestea nahi izandu zuten. Honi garrantzi gehien eman zioten, denetan alaiena baita. Besteak serioago dira».



Fadunito antzerki taldeko partaideak. HITZA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Adineko pertsonentzako oroimen tailerra

Ikastaroa irailan hasiko den arren, izena emateko epea uztailaren 18an amaituko da

ERREDAKZIOA

Leitzako Jubilatuta Elkarteak adineko pertsonentzako oroimen tailerra antolatuta du. Ikastaroa irailaren 18an hasiko den arren, uztailaren 18an amaitzen da izena emateko epea.

Osozara 12 saio izanen dira ondorengo egunetan egingo dituztenak: irailaren 18, 20, 25, 27, eta urriaren 2, 4, 9, 11, 16, 18, 23 eta 25. Tailerra beti ordu berean izanen da, 18:00etatik 19:30era.

Ikastaro honetan oroime-

nak nola lan egin duen azterteaz gain, ariketa eta teknika ezberdinak ere ikasiko dituzte, memoria entrenatzeko eta eguneroko bizitzan memoria-ekin izan daitezkeen akats txikie aurre egiteko. Antolatuzaileek azaldu duten bezala «Jubilatu Elkarteak bazkideek lehenetsua izanen dute». Hauentzako ikastaroak 30 euro balioko ditu, eta bazkide ez direnentzako, 35 euro.

Izena emateko ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 948 51 02 71, uztailaren 18a baino lehen.

LEITZA ▶ NATUR BIDEAK

Turismoa bultzatzeko Pasaporte sortu dute

Plazaola Partzuergoak sortu du, Plazaolan behe-denboraldian turismoa sustatzeko

ERREDAKZIOA

Astearte goizean Pasaporteak delakoaren aurkezpena egin zuten Plazaola Partzuergoak. Liburuxka honen bitartez ekimen honen barruan dauden enpresak eskaintza berezi bat eskainiko diete haur erabili nahi duten bezeroei. Behe-denboraldian turismoa bultzatzea helburu duen liburux-

ka hau urriaren 1etik ekainaren 30a bitarte baliagarria izanen da.

5.000 ale egin dira, euskaraz eta erdaraz, eta uztaila, abuztua eta irailan banatuko dituzte, behe-denboraldian erabil daitezzen. Liburuxkak enpresa hauetan, Lekunberriko turismo bulegoan eta beste hainbat informazio puntutan banatuko dituzte.

BIDAIA ALTERNATIBOAK

Bidaiatzeko beste modu bat

Hegaldiarekin ...tik aurrera Hegaldirik gabe

VENEZUELA 20 egun 2030€
Peru 17 egun 1805€
Bulgaria oinez 15 egun 1210
Vietnam 20 egun 2190€
India 16 egun 1200€
Yemen 18 egun 1580€
Uzbekistan 17 egun 1790€

Egitarru gehiago aukeran
 KONTSULTATU

Web orriko bazkidearen txokoa izena eman eta bidaiaren baten zozketan sartuko zara.

Naminia-Bostwana-Zimbabwe
 14 egun 700€
Hegoafrika - Lesotho
 20 egun 1000€
Bolivia 16 egun 997€
Estatu Batuak 16 egun 1218€
Canada 15 egun 1189€
Nepal 13 egun 558€
Myanmar 14 egun 760€

Egitarru gehiago aukeran
 KONTSULTATU



KULTOUR

Segundo Izpizua 28
 Donostia. 943 29 70 25

info@kultourbidaiak.com
 www.kultourbidaiak.com

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 5a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez  arratsaldez  beroena **22** hotzena **15**

BIHARKO EGURALDIA

goizez  arratsaldez 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jai batzordeak zikiro jaterako txartelak eskuratzeko epea luzatu du taberna hauetan: Etxeberria, Jubilatuen Taberna, Kafe Letamendia, Iskiña eta Kurpil.

Ibarra. Alurr Dantza Taldeak jaietan, abuztuaren 23an, sokadantza egiteko entseguak antolatu ditu hilaren 10ean, 20:30ean egoitza zaharrean. Herriar guztiak gonbidatzen dituzte. Aurten Bizi Nahi jubilatuta elkartearen aurrean dantzatuko dute.

Tolosa. Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatu du Topaguneak, 15:20ean Renfeko apeaderotik abiatuta. Prezioa: 4 euro.

Tolosa. Tolosaldeko Mankomunitateak jakinarazten du etzi 09:00etatik 13:00etara bitartean Tolosako Trianguloan egongo dela landare olio eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzua eskaintzen duen furgoneta.

Zizurkil. Zizurkilen Barrena beka antolatu du Udalak, herriko emakume baseritarrei buruzko diagnostikoa egiteko. Lanak udalekxan aurkeztu behar dira 943 692495 zenbakian.

Zizurkil. Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea bihar amaituko da, ostirala.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apezetvea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Tolosa Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5. 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
20:00-21:00. Irauli uhinak.
21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



‘Busti zaitez’ ekimena abian esklerosi anizkoitza gainditzeko

GIZARTEA ▶ Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioak antolatuta, gaisotasun honenganako sentsibilizazioa eta diru bilketa helburu duen *Busti Zaitez* ekimena jarri dute abian. Ekimeneko ekitaldi nagusiak igande honetan egingo dituzte, eta programaren baitako herrietako igerileku eta hondartzetan izango dira. Tolosa ere programaren barruan dagoenez, bertako igerilekuan ere izango dira ekitaldiak. Edonork hartu ahaliko du parte, hainbat metro igeri egitearekin nahikoa izango da, eta ordainetan, diploma bat banatuko dute. Ekimen honen aurkezpenean izan ziren Jose Mari Gorrotxategi tolosaldeko eta Bernardo Atxaga asteasuarra. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Udane Sarasola.
Zorionak etxekoan partetik eta Migelen partetik.



URTE ASKOAN
Eider Erauskin Iturbe. Gaur 8 urte. Gema, Imanol eta familia. Ondo pasa zalamerita!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAREN egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...